

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	EKOIZPEN-LERRO AUTOMATIZATUETAKO MAKINERIAREN MUNTAKETA-LANA PLANIFIKATZEA	Iraupena	30
		Baldintzatua	
Kodea	UF0629		
Lanbide-arloa	Instalazioa eta mantentze-lanak		
Lanbide-eremua	Makineria eta ekipo industrialak.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Makineria, tresneria industrial eta ekoizpen-lerro automatizatuen muntaketaren plangintza, kudeaketa, mantentze-lanak eta ikuskapena egitea	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Makineria, tresneria industrial eta ekoizpen-lerro automatizatuen instalazioen muntaketa planifikatzea eta ikuskatzea	Iraupena	130
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ekoizpen-lerro automatizatuetao makineriaren mekanizazio- eta muntaketa-lanak lantokian	Iraupena	70
	Lan- eta ingurumen-arriskuen prebentzioa makineria eta tresneria industrialaren muntaketa- eta mantentze-lanetan (zeharkakoa)		30

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1282\_3 MAKINERIA, TRESNERIA INDUSTRIAL ETA EKOIZPEN-LERRO AUTOMATIZATUEN LANTOKIKO INSTALAZIOA PLANIFIKATZEA ETA IKUSKATZEA gaitasuna-ataleko LB1, LB2, LB3 eta LB4 lanbide-burutzapenekin, arriskuak prebenitzeari dagokionez.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Makineria, tresneria industrial eta lerro automatizatuak muntatzeko prozesuaren jarduerak, baliabideak eta obra-plana zehaztea, muntaketaren dokumentazio tekniko oinarri hartuta.

EI1.1 Instalazioei buruzko dokumentazio teknikoaren ezaugarriak deskribatzea, gero instalazioa lantokian muntatzeko.

EI1.2 Makina, tresneria eta lerro automatizatuetaarako behar den dokumentazioa hautatzea eta ezaugarriak zehaztea, lantokiko instalazioaren muntaketa-prozesua ikuskatzeko.

EI1.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuak dituen instalazio tipo bat emanik, hauek egitea, jarraibide-eskuliburu, plano, eskema eta abarren bidez:

- Instalazioko makinen eta ekipoen osagaiak identifikatzea eta haien ezaugarriak zehaztea.
- Muntaketan erabiltzen diren erlazonatutako instalazioak, makinak eta ekipoak identifikatzea eta haien ezaugarriak zehaztea.
- Instalazioaren muntaketan egin behar diren lanak (makinak eta ekipoak finkatzea, mihiztatzea, euskarriak jartzea, konexioak eta beste) zehaztea.
- Egin beharreko eragiketen sekuentzia zehaztea.
- Muntaketa-lanak egiteko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak zehaztea.
- Muntaketa-plana zehaztea eta prozesua dokumentatzea.

##### Edukiak

#### 1. Lerro automatizatuak lantokian muntatzeko dokumentazio teknikoak

- Instalazioen dokumentazio teknikoak, lantokian muntatzeko.
- Obra zibilaren marrazketa teknikoak: eraikin industrialetako egitura-elementuak.
- Marrazketa tekniko industrialak:
  - Multzo-planoak.
  - Piezkatze-planoak.
  - Materialen zerrendak.
  - Lantokian ezartzeko planoak.
- Eskemen planoak: pneumatikoak, hidraulikoak, elektrikoak, elektronikoak, erregulazioa eta kontrola, etab.
  - Sinbologia normalizatua.
  - Erabilera-eskuliburuak.

#### 2. Lerro automatizatuak lantokian muntatzeko prozesuaren kudeaketa

- Muntaketa-planoak. Fase guztien koordinazioa.
- Muntaketa-prozesuak: Erabili beharreko teknikak.

- Eragiketen planifikazioa eta haien sekuentzia: finkatzea, mihizatzea, euskarriak jartzea, konexioak, eta abar.
- Muntaketa-lanetarako hornikuntzaren kudeaketa.
- Biltegiatzearen kudeaketa.
- Zuinketa-prozedurak lekuan bertan.
- Muntaketa-lanetan erabilitako makinak, ekipoak, tresnak, erremintak eta baliabideak.
- Makinak kokatzean masa handiak mugitzeko maniobretarako makinak eta teknikak.
- Gero muntaketa egiteko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak.
- Muntaketa-prozedura prestatzea eta dokumentatzea.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta lanbide-eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0628 Ekoizpen-lerro automatizatuetako makineriaren mekanizazio- eta muntaketa-lanak lantokian.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Makineria, tresneria industrial eta ekoizpen-lerro automatizatuen muntaketaren plangintza, kudeaketa, mantentze-lanak eta ikuskapena egitea